

UKIMENAREN BITXIKERIAK

Kameleoiak bere azala gauzak sentitzeko erabiltzen du, baina baita etsaietatik gorde eta babesteko ere. Kameleoia arriskuan aurkitzen denean, bere azala _____ aldatzen da. Horrela, etsaiek adarrekin, hostoekin edota basoan aurkitzen diren gauzekin nahasten dituzte.




Kameleoia hosto artean (Hornet 18).

Hatz-markak hatz-mamietako _____ dira eta ez daude bi hatz-marka berdin. Pertsonak identifikatzeko erabiltzen da, ez baitaude bi gizaki hatz-marka bera dutenik, ezta _____ ere.

Azalak pigmentu bat dauka, melanina izenekoa, azalari kolorea emateaz gain, eguzki-izpietatik babesten duena. Azal _____ pertsonak melanina gehiago daukate azal zurikoek baino.

Larruazala da gizakietan gehien pisatzen duen organoa: gizakiaren larruazalak gorputz osoaren %16a pisatzen du. Esate baterako, 70 kilo pisatzen dituen gizaki baten larruazalak _____ kilo inguru pisatuko lituzke.

Pertsona itsuek, ikusmenik ez dutenez, errealitatea beste zentzumenen bidez ezagutzen dute: entzumenaren eta, batez ere, ukimenaren bidez. Irakurri ahal izateko, itsuek _____ osatutako alfabetoko berezi batetako letrak atzamar mamiekin ukitzen dituzte. Alfabeto horri _____ alfabetoa deritzo.



Braille

bikiek

zimurdurak

puntuz

beltzeko

kolorez

hamaika